



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2019/06/05

## **Roger Torrent Kataluniako Parlamenteko Presidenteak Gernikako Batzarretxea bisitau dau**

Harrerea egiteko ardurea Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak hartu dau Foru parlamentuaren egoitza historikoan. Hasteko, “Agur Jaunak” jo dabe txistulariek ondoetorria emoteko. Roger Torrent Kataluniako Parlamenteko Presidenteak gaur Gernikako Batzarretxean egin dauen bisitan, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko Lehendakaria eta Gasteizko Legebiltzarreko Mahaiko kide honeek be izan dira: Eba Blanco (EH Bildu) lehen lehendakariordea, Iñigo Iturrate (EAJ-PNV) lehen idazkaria, eta Cristina Macazaga (Elkarrekin Podemos) bigarren lehendakariordea. Beste alde batetik, Bizkaiko Batzar Nagusiak ordeztuz, Joseba Gezuraga mahaikidea be (Mahaiko bigarren lehendakariordea) izan da harrera-ekitaldian.

Txistulariek musikaz lagundu dabe Batzarretxearen kanpoaldetik egin dan ibilpidea. Lehenengo, haretx zaharraren enborrharen aurrean geratu dira. Erdi Aroko jatorrizko Gernikako Arbolatik kontserbetan dan aztarna zaharrena da. Bisitareen oroigarri, argazki bat atara da Gernikako Arbolearen aurrean, Euskal Herriaren sinbolo unibersalenaren magalean. Euria zanez, Ohorezko Aureskua Osokoen Aretoko aterpean dantzatu behar izan da.

Batzarretxe barrura sarturik, Otadui Osokoen Aretoko xehetasunak eta berezitasunak azaldu deusaz Torrenti. Bizkaiko 26 Jaunen erretratuak dagoz bertan. Ganera, Lurralde Historikoaren historiako dokumentazioa, Foruaren aleak barne, gordetan dauen Liburutegi-Agiritegia be bisitau dabe. Bertan, Kataluniako Parlamenteko Presidenteak eskaintza luzea sinatu dau Ohorezko Liburuan, bertan berba honeek ezarriz egin jakon harrera eskertzeko eta Gernikako Arbolaren balioa azpimarratzeko: “bere adarrek etorkizunari eta askatasunari begiratzen deutsee, baita Kataluniako herriak Euskal Herriarenganako sentiduten dituan adiskidetasunari eta maitasunari be”.

Bisitaren oroigarri moduan, Batzar Nagusietako Lehendakariak “Esku-mosua” margolanaren erreplikea emon deutso Torrenti. 1609ko kuadru hori Francisco de Mendietak margotua da, eta Osokoen Aretoaren ateburuan dago. Otadui azpimarratu dauenez, “emakumeei eginiko lehenengo talde erretratua da Europa osoan”. Torrentek, ordean, oparitu egin deusaz Otaduii Parlamenteko Urrezko Dominaren kopia eta Kataluniako paisajeetan eta kulturen zeharreko argazkiak batzen dituan liburu bat.

Lurraldearen foru araubidearen oinarriak ezagutzeko xedez mundu osotik etorritako erakunde-bisita ugari jaso ditu Batzarretxeak azken urteetan, Euskadiren historian leku esanguratsua da-eta. Bizkaiko Batzar Nagusien egoitza historiko horrek turista asko be jasoten ditu. 2018an, 151.600 bisitari baino gehiago euki ebazan, eta horreetatik % 20,25 Europatik etorri ziran. Urte horretan bikoiztu egin zan atzerritik etorritako turisten kopurua. Beste autonomia erkidego batzuetatik etorri ziran 75.431 personen jatorriari jagokonez, Katalunia azpimarratu behar da: 16.687 katalanek bisitau eben igaz Batzarretxea.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
05/06/2019

## **Roger Torrent, Presidente del Parlament de Catalunya, visita la Casa de Juntas de Gernika**

Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, ha sido la anfitriona de la recepción en la histórica sede de la Cámara foral, que ha comenzado con el canto de bienvenida “Agur Jaunak”, interpretado por dos txistularis. Roger Torrent, Presidente del Parlament de Catalunya, ha visitado hoy la Casa de Juntas de Gernika, acompañado por la Presidenta del Parlamento Vasco Bakartxo Tejeria y por integrantes de la Mesa de la Cámara de Gasteiz: la vicepresidenta primera Eba Blanco (EH Bildu), el jeltzale Iñigo Iturrate (secretario primero), y la secretaria segunda Cristina Macazaga (Elkarrekin Podemos). También ha acudido, en representación de las Juntas Generales de Bizkaia, el mahaikide Joseba Gezuraga (vicepresidente segundo de la Mesa).

Txistularis han acompañado con música el recorrido por el exterior de la Casa de Juntas, donde han visitado el viejo tronco del roble, el vestigio más antiguo que se conserva del originario Árbol de Gernika que se remonta a la Edad Media. La visita ha quedado inmortalizada con una fotografía ante el frondoso Árbol de Gernika, el símbolo más universal del pueblo vasco. La persistente lluvia ha obligado a trasladar el Auresku de Honor a la antesala del Salón de Plenos.

Ya en el interior, Otadui ha contado a Torrent los detalles y singularidades del Salón de Plenos, que está decorado con los retratos de 26 Señores de Bizkaia. También han visitado la Biblioteca-Archivo que alberga documentación de la historia del territorio histórico, incluidos ejemplares del Fuero. Allí el Presidente del Parlament de Catalunya ha firmado en el Libro de Honor una larga dedicatoria agradeciendo la recepción, destacando el valor del Árbol de Gernika “cuyas ramas se proyectan al futuro, a la libertad” y la fiel amistad y el amor del pueblo catalán hacia el pueblo vasco.

Como recuerdo de la visita, la Presidenta de las Juntas ha entregado a Torrent una réplica de “El besamanos”, cuadro de Francisco de Mendieta pintado en 1609 que preside el Salón de Plenos y que, como ha subrayado Otadui, “es el primer retrato colectivo de mujeres de toda Europa”. A su vez, Torrent ha regalado a Otadui una reproducción de la Medalla de Oro del Parlament y un libro que recoge un recorrido fotográfico del paisaje y la cultura catalanas.

Por el papel que ha jugado en la historia de Euskadi la Casa de Juntas ha recibido en los últimos años numerosas visitas institucionales de todo el mundo con el fin de conocer las bases que sustentan el régimen foral del territorio. La histórica sede del Parlamento foral de Bizkaia es también parada obligada para turistas. A lo largo de 2018, registró más de 151.600 visitantes, de los que el 20,25% fueron europeos en un año en el que se duplicó el número de turistas procedentes del extranjero. De las 75.431 personas que acudieron procedentes de otras comunidades autónomas, destaca Cataluña; un total de 16.687 catalanas y catalanes visitaron la Casa de Juntas el año pasado.